



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozioak arrakasta izateko hainbat funtsezko jarduera egin behar ditugu, gehien bat ekoizpen arloan, arazoak konpontzeko garaian eta plataforma edo sareko jardueretan. Gutako bakoitzak jarduera batzuk egingo ditu, negozioak ondo funtzionatzeko.

Lehenik eta behin, guk egin behar dugun jarduera garrantzitsuenetako bat ekoizpena da. Hasiera batean ez ditugu produktu gehiegi ekoiztu behar, hilabetean batez beste 270 ogi eta 510 jogurt, horregatik gu arduratuko gara hortaz. Ekoizpenaren arduraduna Nahia Alustiza izango da. Biologiako irakaslearekin eta ingeniari kimikako ikaslearekin ekoizpen prozesu guztia ondo dagoela egiaztatu behar du. Pausu guztiak ondo ematen direla ikusiko du, erabaki guztiak berak hartuko ditu eta dena antolatuko du enpresa ahalik eta produktiboena izan dadin. Gutako bakoitza non egongo den erabakiko du, adibidez, Aisling jogurten ekoizpenaz arduratuko da, eta Nahia Bergara ogiaren ekoizpenaz. Nahia Alustiza intsektuak haztuko ditu, irakasle eta ikaslearen laguntzarekin, eta ahal duenean ogia eta jogurtaren ekoizpenean lagunduko du.

Beste alde batetik, Aisling gure enpresaren arlo ekonomikoaz arduratuko da, gauza hauek gustuko dituelako eta azkarra delako. Enpresako diru-kontu guztiak kudeatuko ditu, zeintzuk diren gure enpresako kostuak (finkoak eta aldakorrak), irabaziak... Gure produktuak egiteko behar diren lehengai guztien erosketaz arduratuko da, produktuak produzitzeko behar diren makinaren kostuez... Gainera, gure produktuen banaketaz arduratuko da, hau da, zein dendetan salgai egongo diren adostuko du, zer preziotan, dendetara iristeko garraioaz arduratuko da, mezularitza enpresarekin harremanetan jarriko da eta prezio bat mugatuko dute.

Azkenik, komunikazio-kanalekin lotuta dagoen guztiaz Nahia Bergara arduratuko da. Oso eguneratuta dago sare sozialetan eta teknologia berriekin zerikusia duten gauza guztiekin, eta sormen handikoa da. Gure sare sozialak honek sortuko eta eramango ditu, eta hauen bidez egingo dugun publizitateaz arduratuko da, ideia oso onak dituelako gure produktua saltzeko bideoak eta edukia egiteko. Web gunea ere sortuko du, ez da oso lan zaila, izan ere, ez ditugu bertan produktuak salgai izango, bakarrik informazioa eskainiko dugu bertan. Gaur egun interneten web guneak sortzeko plataforma asko daude, eta hauek ondo sortzeko zein pausu jarraitu behar diren azaltzen dira, prozesua errazteko. Azkenik, Nahiak sare sozialetako mezuak erantzuteaz arduratuko da, edozein zalantza argitzeko.